



DANTZA HIRIAN mugaz gaindiko jaialdiak sortutako artista egoiliarrentzako ATERPEAN programak uztailean harrera egingo die LASALA konpainiari eta JORDI VILASECA koreografoari, hiri-espazioetarako bi dantza-lan berri sor ditzaten.

Joan den maiatzean, Dantza Hirian, Baiona-Donostia Eurohirian garatzen den mugaz gaindiko jaialdi ibiltariak, ATERPEAN artista egoiliarrentzako programaren zazpigarren edizioaren deialdiari ekin zion, hiri-espazioetan gaur egungo dantza sortu, ikertu eta ezagutzera emateko eta sorkuntza-prozesuak publiko mota desberdinegana hurbildu daitezela errazteko helburuarekin.

Aurkeztutako hamabost proiektuetatik ondorengo hauek hautatu zituzten; LASALA konpainia (Donostia) eta JORDI VILASECA koreografoa (Bartzelona).

Proiektuen aukeraketan arreta berezia eskaini zitzaien Akitaniatik eta Euskaditik etorritako proposamenei, euskal kulturarekin, bertako historiarekin eta hizkuntzarekin... elkarrizketa koreografiko bat finkatzen zutenei, eta era berean, kultura horretako elementu desberdinak eta gaur egungo koreografia-hizkuntza bat erabiliz hori berrasmatu eta islatu nahi zutenei.

Halaber, sorkuntza-prozesua publiko desberdinekin partekatzeko modu berriak sustatzearen artistak darabilen ikuspegia balioetsi zen, bai publiko kolektibo bereziekin (dibertsitate funtzionala duten pertsonekin, haurrekin, hirugarren adinekoekin...) eta bai publiko orokorrekarekin ere.

> SORKUNTZA-LAN BERRIAK: LAUESKU ETA 36,5°

Gero eta ezagunagoa egiten ari den LASALA konpainia gipuzkoarreko Judith Argomaniz koreografoak "LAUESKU" proposatu du, hiru dantzarientzat prestatutako euskal pilotari buruzko sorkuntza-lan bat. Pilota-partida baten bitartez, joko-arauak zalantzan jartzen dituzten hainbat egoera aurkezten dira. LAUESKU lanaren interpreteak hauek izango dira; **JUDITH ARGOMANIZ, JAIOTZ OSA eta LIONEL AH-SOU** (Dantzaz Konpainiatik etorria).

VILASECAREN "36,5°C" lana break dancearen eta gaur egungo dantzaren ezagutzari buruzko gogoeta, elkarrizketa, kritika eta zabalkundea bilatzen duen lan bat da. Sorkuntza-lan honetako partaideak gaur egungo dantzaren heziketa jaso duten breakdanceko dantzari dira: **CHEY JURADO**, aurten hirugarren aldiz jarraian **Red Bull BC One** lehiaketa ospetsuaren final nazionala irabazi duena eta azaroaren 30ean Seul hirian (Hego Korea) Espainiaren ordezkari izango dena, **LAURA JIMÉNEZ**.

Egonaldi horiek hiru asteko iraupena izango dute artista bakoitzarentzat eta CCN Malandain Ballet Biarritzeko Gare de Midi, Dantzagunea (Errenteria), Egiako Kultura Etxea (Donostia) eta Mendi Zolan (Hendaia) egoitzetan egingo dira.

Egonaldiak irauten duen bitartean, konpainiek harreman zuzena edukiko dute Eurohiriaren lurraldeko biztanleekin, hainbat jarduera eginez (tailerrak, topaketak...), bere esperientziak ikusleekin trukatzeko eta dantza-obra baten sormen-prozesua ezagutzera emateko asmoz. **Sorkuntza-lan berriak Dantza Hirian jaialdiaren hurrengo edizioan estreinatuko dira, irailean.**

Asier Zabaleta, Iker Gómez, Izaskun Lapaza, Eneko Alcaraz eta Iker Larrue koreografoak eta, horiekin batera, Kukai, Anakrusa eta Androphine konpainiak Aterpean programatik igaro dira 2008az geroztik.

Eusko Jaurlaritzaren, Akitaniako Erregioaren, Donostia 2016 ekimenaren, Gipuzkoako Aldundiaren, Euskal Kultur Erakundearen, Biarritzeko CCN Malandain Balleten eta Hendaiaiko Udalaren laguntza jasotzen du Aterpean programak.

> JORDI VILASECA KONPAINIAREN EGONALDIAK

Uztailaren 7tik 13ra Dantzagunean (Errenteria)
Uztailaren 14tik 20ra Mendi Zolan (Hendaia)
Uztailaren 21etik 27ra Egiako Kultura Etxean (Donostia)

> SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK (SORKUNTZA-PROZESURA HURBILTZEA)

Uztailak 11 / Dantzagunea > Entsegu irekia (publiko orokorra)
Uztailak 18 / Mendi Zolan > Topaketa (ezinduak helduak)
Uztailak 24 / Egiako Kultura Etxea > Entsegu irekia (neska-mutilak)

> JUDITH ARGOMANIZ KONPAINIAREN EGONALDIAK

Uztailaren 14tik 20ra Egiako Kultura Etxean (Donostia)
Uztailaren 21etik 27ra Biarritzeko CCN Malandain Balleten
Uztailaren 28tik abuztuaren 1era Dantzagunean (Errenteria)

> SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK (SORKUNTZA-PROZESURA HURBILTZEA)

Uztailak 17 / Egiako Kultura Etxea > Topaketa (pilotariak)
Uztailak 25 / Garde de Midi > Entsegu irekia (publiko orokorra)
Uztailak 30 / Dantzagunea > Entsegu irekia (publiko orokorra)

> IBILBIDEA Judith Argomaniz (Donostia). Koreografoa eta interpretea

Dantza klasikoko ikasketak bere jaioterrian hasi zituen, Donostian.

2005. urtean Ballet Biarritz Junior konpainiako partaide bihurtuko da eta Thierry Malandainen piezak interpretatuko ditu.

Bartzelonara joango da gero, Institut del Teatren hasiko da eta Gaur Egungo Dantza espezialitatean graduatuko da. 2009an Madrilera aldatuko da eta María de Ávila Goi Mailako Dantza Kontserbatorioan osatuko ditu bere ikasketak, Virginia Valeroren zuzendaritzapean, eta karrera-amaierako proiektuan kalifikaziorik gorena erdietsiz lizentziatuko da. Epealdi horretan, besteak beste, Nacho Duato, La Macana, Iker Arrue eta Laura Vila eta Shlomi Bittonen lanak interpretatuko ditu.

2012an Amaury Dance Companyko partaide bihurtuko da. **2013an LASALA konpainia sortuko du**, dantza eta argazkigintzatik etorritako artistek osatua. HOOKED izeneko bere lehen obrak, HOOKED(still) obraren laburpen batek, hainbat sari jaso ditu koreografia-lehiaketetan Frantzia, Madril eta Katalunia.

> Jordi Vilasecaren IBILBIDEA (Bartzelona). Koreografoa eta interpretea


Eskarmentu handiko dantzaria eta sortzaile gaztea, Jordi Vilaseca gero eta ezagunagoa egiten ari da estatu mailan. Duen dantza-heziketa zabala eta heterogeneoa da eta balletaren alorrean, besteak beste, Mauro Galindo, Marta Munsó eta Bárbara Kasprowich bezalako irakasleak izan ditu, eta gaur egungo dantzarenean, berriz, Ramón Oller eta Keith Morino. Jordi Vilaseca Bartzelonako Institut del Teatren graduatua dago.

Interprete gisa, Estatu barruko nahiz kanpoko konpainietan egin du ibilbidea, hala nola Noordans, Metros, Lanònima Imperial, Plan B, Larumbe Danza, Steptex Dance Company eta Entremans. Horrez gain, Centro Coreográfico Galegoren proiektuetan parte hartu du, Roberto Oliván koreografo gisa aritutako O kiosko das almas perdidas lanean eta Cisco Aznarrek sortutako Giseliña lanean. Ibilbide horri esker zenbait sari jaso izan ditu, esate baterako Burgos-Nueva York Lehiaketa Koreografikoan, ADAEk antolatutako lehiaketa koreografikoan eta Castellóko Hiria Estatuko Lehiaketan. 2010ean, Jordi Vilasecak eta Toño Monzón ekoizleak d_ruses Proiektua eratu zuten mugimenduaren arteei buruz eta gaur egungo sorkuntza-lanei buruz. Berarekin POR, 1+7, Cara de mimbres, Citeaux eta 5 (Cinco) lanak estreinatu ditu.



Le projet a été financé à 65% par le *fond* européen FEDER grâce au POCTEFA 2007-2013 (**Programme de Coopération Territoriale Espagne-France-Andorre**). L'objectif du POCTEFA est de renforcer l'intégration économique et sociale de la zone frontalière Espagne-France-Andorre. Il concentre son aide sur le développement d'activités économiques, sociales et environnementales transfrontalières au moyen de stratégies conjointes en faveur du développement territorial durable.

El proyecto ha sido cofinanciado al 65% por fondos europeos FEDER a través del POCTEFA 2007-2013 (**Programa de Cooperación Territorial España-Francia-Andorra**). El objetivo de POCTEFA es reforzar la integración económica y social de la zona fronteriza España-Francia-Andorra. Su ayuda se concentra en el desarrollo de actividades económicas, sociales y medioambientales transfronterizas a través de estrategias conjuntas a favor del desarrollo territorial sostenible.





ATERPEAN, programme d'artistes en résidence créé par le festival transfrontalier DANTZA HIRIAN, accueillera au cours du mois de juillet la compagnie LASALA et le chorégraphe JORDI VILASECA pour la création de deux nouvelles œuvres de danse en paysages urbains.

Au mois de mai dernier, Dantza Hirian, festival transfrontalier et itinérant de l'Eurocité Bayonne-San Sebastián, a lancé l'appel à projets de la septième édition du programme d'artistes en résidence ATERPEAN, pour soutenir la création, l'expérimentation et la diffusion de la danse contemporaine en paysages urbains et faire découvrir les processus de création à des publics divers.

Parmi les quinze projets présentés, la compagnie LASALA (Donostia-San Sebastián) et le chorégraphe JORDI VILASECA (Barcelone) ont été retenus.

Pour cette sélection, une attention particulière a été portée aux projets d'Aquitaine et Euskadi qui établissaient un dialogue chorégraphique avec la culture basque, son histoire, sa langue...et qui utilisaient des éléments de cette culture pour la réinventer, pour s'en approprier, par l'intermédiaire d'un langage chorégraphique contemporain.

Un autre aspect pris en compte a été la vision de l'artiste concernant la promotion de nouvelles façons de partager le processus de création avec des publics divers, qu'il s'agisse de collectifs spécifiques (personnes en situation de handicap, enfants, troisième âge...) ou du public en général.

> LES NOUVELLES CREATIONS : LAUESKU ET 36,5 °C

La chorégraphe Judith Argomaniz de la compagnie émergente LASALA, originaire de Gipuzkoa, a présenté *LAUESKU*, une création autour de la pelote basque pour trois danseurs. Les différentes situations d'un match de pelote basque remettent en question les règles mêmes du jeu. Les interprètes de *Lauki* seront : **JUDITH ARGOMANIZ, JAIOZ OSA et LIONEL AH-SOU** (de la compagnie Dantzaz).

36,5 °C de VILASECA, est une œuvre faite de réflexion, dialogue, critique et diffusion de la connaissance du break dance et de la danse contemporaine. L'équipe artistique sera des danseurs de break dance formés en danse contemporaine : **CHEY JURADO** qui cette année a gagné pour la troisième fois consécutive la finale nationale de la prestigieuse compétition **Red Bull BC One** et qui représentera l'Espagne le 30 novembre à Séoul en Corée du Sud y **LAURA JIMENEZ**.

Les résidences seront d'une durée de trois semaines pour chaque artiste et se réaliseront à la Gare de Midi du CCN Malandain Ballet Biarritz, Dantzagunea (Errenteria), la Maison de la culture d'Egia (Donostia) et l'espace culturel Mendi Zolan (Hendaye).

Pendant la période de résidence, les compagnies seront en contact direct avec la population du territoire de l'Eurocité en réalisant différentes activités (ateliers, rencontres...) dans le but d'échanger leurs expériences avec le public et de faire connaître le processus de création d'une œuvre de danse. **La première des nouvelles créations sera donnée en septembre lors de la prochaine édition du festival Dantza Hirian.**

Depuis 2008 les chorégraphes Asier Zabaleta, Iker Gómez, Izaskun Lapaza, Eneko Alcaraz, Iker Larrue ainsi que les compagnies Kukai, Anakrusa et Androphine sont passés par Aterpean.

Aterpean reçoit le soutien du programme POCTEFA Gouvernement basque, la région Aquitaine, Donostia 2016, la Diputación de Gipuzkoa, l'Institut culturel basque, le CCN Malandain Ballet de Biarritz et la Mairie d'Hendaye.

> RESIDENCES COMPAGNIE JORDI VILASECA

Du 7 au 13 juillet au Dantzagunea (Errenteria)

Du 14 au 20 juillet au Mendi Zolan (Hendaye)

Du 21 au 27 juillet à la Maison de la culture d'Egia (Donostia)

> ACTIONS DE SENSIBILISATION (FAIRE DECOUVRIR LE PROCESSUS DE CREATION)

11 juillet / Dantzagunea > Répétition publique (tous publics)

18 juillet / Mendi Zolan > Rencontre (adultes handicapés)

24 juillet / Maison de la culture d'Egia > Répétition publique (enfants)

> RESIDENCES COMPAGNIE JUDITH ARGOMANIZ

Du 14 au 20 juillet à la Maison de la culture d'Egia (Donostia)

Du 21 au 27 juillet au CCN Malandain Ballet de Biarritz

Du 28 juillet au 1^{er} août au Dantzagunea (Errenteria)

> ACTIONS DE SENSIBILISATION (FAIRE DECOUVRIR LE PROCESSUS DE CREATION)

17 juillet / Maison de la culture d'Egia > Rencontre (joueurs de pelote basque)

25 juillet / Gare de Midi > Répétition publique (tous publics)

30 juillet / Dantzagunea > Répétition publique (tous publics)

> PARCOURS Judith Argomaniz (Donostia). Chorégraphe et interprète

Elle commence ses études de danse classique dans sa ville natale, San Sebastián. En 2005, elle rejoint la compagnie Ballet Biarritz Junior où elle interprète des œuvres de Thierry Malandain.

Elle part pour Barcelone, intègre l'Institut del Teatre et obtient son diplôme en Danse contemporaine. En 2009, elle arrive à Madrid pour poursuivre ses études au Conservatorio Superior de Danza María de Ávila dirigé par Virginia Valero et obtient son diplôme avec la note maximum à son projet de fin d'études. Pendant cette période, elle interprète entre autres des œuvres de Nacho Duato, La Macana, Iker Arrue et Laura Vilar, et Shlomi Bitton.

En 2012, elle rejoint la compagnie Amaury Dance Company. **En 2013, elle crée LASALA, une compagnie dont les membres sont issus de la danse et de la photographie. Sa première œuvre, HOOKED, extrait de l'œuvre HOOKED (still), a été lauréate de différents concours chorégraphiques en France, à Madrid et en Catalogne.**

> PARCOURS Jordi Vilaseca (Barcelone). Chorégraphe et interprète

Danseur expérimenté et jeune créateur, Jordi Vilaseca fait partie de la scène nationale la plus émergente. Sa formation est étendue et hétérogène. Il s'est formé en danse classique auprès de professeurs comme Mauro Galindo, Marta Munsó et Barbara Kasprowich et en danse contemporaine avec Ramón Oller et Keith Morino. Jordi Vilaseca est diplômé de l'Institut del Teatre de Barcelone.

En tant qu'interprète, il a rejoint des compagnies nationales et internationales comme Noordans, Metros, Lanònima Imperial, Plan B, Larumbe Danza, Steptex Dance Company et Entremans. Il a également fait partie des projets du Centro Coreográfico Galego : *O kiosko das almas perdidas*, chorégraphie de Roberto Oliván et *Giseliña*, création de Cisco Aznar. Un parcours récompensé par des prix à plusieurs reprises : au concours de chorégraphie Burgos-New York, au concours de chorégraphie organisé par ADAE et au concours national de la ville de Castellón. En 2010, Jordi Vilaseca et le producteur Toño Monzón ont fondé le Proyecto d_ruses, sur les arts du mouvement et la création contemporaine. Ensemble, ils ont donné la première de *POR, 1+7, Cara de mimbre, Citeaux* et *5 (cinco)*



Le projet a été financé à 65% par le *fond* européen FEDER grâce au POCTEFA 2007-2013 (**Programme de Coopération Territoriale Espagne-France-Andorre**). L'objectif du POCTEFA est de renforcer l'intégration économique et sociale de la zone frontalière Espagne-France-Andorre. Il concentre son aide sur le développement d'activités économiques, sociales et environnementales transfrontalières au moyen de stratégies conjointes en faveur du développement territorial durable.

El proyecto ha sido cofinanciado al 65% por fondos europeos FEDER a través del POCTEFA 2007-2013 (**Programa de Cooperación Territorial España-Francia-Andorra**). El objetivo de POCTEFA es reforzar la integración económica y social de la zona fronteriza España-Francia-Andorra. Su ayuda se concentra en el desarrollo de actividades económicas, sociales y medioambientales transfronterizas a través de estrategias conjuntas a favor del desarrollo territorial sostenible.

